

# FLAMENKOA IGANDE HONETAN ITZULIKO DA EUSKALDUNARA, “POSEIDON” INTERPRETATUKO DUEN SEVILLAKO AMADOR ROJAS BAILAOREAREN ESKUTIK

**Nazioarte mailan taula gainean onenetakoa den artista baten eskutik iritsiko da Euskaldunara beste gizaki batzuek eragindako gizakien sufrimenduaren, eta jainko baten, Poseidonen, esku-hartzearen beharraren alegoria hau**

**Igande honetako ikuskizuna generoan erreferentea den SO-LA-NA Entertainment konpainiaren eskutik Euskaldunara iritsiko den flamenkoaren erreferentziatzko lanen ziklo baten barruan dago**

*Bilbon, 2021eko apirilaren 26an*

Flamenkoaren arteari lotutako kalitate eta benetakotasun handiko ikuskizunen sorkuntzan eta ekoizpenean erreferentea den SO-LA-NA Entertainment konpainiaren eskutik, Amador Rojas bailaore sevillarra Euskaldunara helduko da igande honetan, maiatzaren 2an, “Poseidón” ikuskizunarekin. Konpainiak aurten Euskaldunara ekarriko dituen hiru lanetatik lehena da, izan ere, ekainaren 10ean “La minas” eskainiko du, eta uztailaren 7an, “Faro”.

“Poseidon”, beste gizaki batzuek eragindako gizakien sufrimenduaren, eta jainko baten, Poseidonen, esku-hartzearen beharraren alegoria da.

Igande honetan Euskaldunara iritsiko den ikuskizunaren protagonistak hauek dira: Amador Rojas (dantza); Manu Soto (kantea); Inma la Carbonera (kantea); Jose Tomas Jimenez (gitarra); Sergio de Lope (flauta eta saxoa); eta Lolo Plantón (perkusioa).

Amador Rojas, ziurrenez, munduko eszenatoki nagusietako taula gaineko artistarik onena da. Autodidakta eta “Ustekabeko Artista”

saria Sevillako Flamenko Biurtekoan. Dantzarako eta flamenkorako zaletasunak gidatu du, hainbat ekoizpen arrakastatsuren maisu handi gisa. Artista autodidakta eta ekintzailea da, eta arrakasta lortzeko bidean, ikasteko eta esperientziak eta agertokia dantzako eta flamenkoko handienetako batzuekin partekatzeko aukera izan du, Manuela Carrascorekin, Morente familiarekin eta Antonio Canalesekin, besteak beste.

Sarrerak [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta ohiko beste kanal batzuetan eros daitezke. Prezioa: 32 euro (kudeaketa gastuak barne).

### **Las Minas**

Ricardo Fernández del Moralek (kantea eta gitarra) eta Yolanda Osunak (dantza) flamenkoan zehar bidaiatuko dute, Soleá edo Kante Minero-Levantino izeneko kantu tradizional eta funtsezkoetatik hasi eta jai-giroko beste estilo batzuetara eta abesti herrikoiaren bertsiotara, la “Bien Pagá” adibidez, eta baita alegrietara, Cadizko habaneretara eta buleria-kupleetara ere.

Ricardo kantaorea eta gitarrista da, eta La Unioneko Cante de Las Minas Jaialdiaren historian lehen aldiz, bost sari irabazi ditu: Malageña, Taranta, Soleá, Toná eta Minera, eta Flamenkoaren munduko saririk preziatuena jaso du, “Lámpara Minera” izeneko.

Yolandak sariak lortu ditu nazioarteko flamenko lehiaketa garrantzitsuetan, Kordobako Lehiaketa Nazionalean eta La Unioneko Cante de las Minas, besteak beste. Dantza bihurtutako bere poesia aurkeztuko digu, flamenko tradizioaren benetakoaren sentimenduari eta errespetuari irekitako atea.

Sarrerak eskuratu daitezke jadanik [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean eta ohiko beste kanal batzuetan 32 eurorengatik (kudeaketa gastuak barne).

### **Faro**

Eduardo Guerreroren eskutik, “FARO” esperientzia paregabea iritsiko da Euskaldunara, hamaika bataila eta ospakizun magikoren lekuko den itsasargiaren poesian inspiratutako ikuskizuna.

Guerrero, nazioartean proiektu handiena duen bailaore espainiarra, gizonezkoen flamenko dantzaren erreferentetzat hartzen da. La Unioneko Cante de las Minas jaialdiko “Desplante” saria lortu zuen. Eduardok teknika ikusgarria du, klasikoetatik edaten du eta eguneratu egiten ditu, eta bere interpretazio-indarrari eta bere estilo garbiari esker arte flamenkoaren bilakaera irudikatzen du.

Sarrerak eskuratu daitezke jadanik [www.euskalduna.eus](http://www.euskalduna.eus) webgunean

eta ohiko beste kanal batzuetan 32 eurorengatik (kudeaketa gastuak barne).